

DBUS-EKO AUTOBUSAK EKOLOGIKOAGOAK DIRA ORAIN

DBUSen 2010eko “Autobus Ekologiko” berriak heltzen hasi dira. Aurten hiriko 8 autobus berri ibiliko dira Donostiako kaleetatik zehar. Azkeneko autobus berriak bezala, hauek ere MAN Lion's City dira eta EEV teknologia ekologikoa dute.

Autobus berri hauek ingurumenaren babesean berriro aurrera egitea ekarri dute, eta berritasun handi gisa ECOLIFE abiadura kaxa automatikoa dute. Horri esker, DBUS da hiriko garraiorako enpresetatik bere autobusetan abiaduraz aldatzeko ZF markako sistema berri hau jartzen dien lehena.

Sistema honen alderik hoberenak hauek dira:

- Erregaiaren kontsumoa eta CO2ko igorpenak %5 murrizten ditu gutxi gorabehera.
- Bere balio-bizitza %40 handiagoa eta zaintzarako denbora tarteak luzeagoak.
- Frenatzeko potentzia %40 handiagoa, atzeratzaile primarioa integratuta duela.
- Abiadura aldaketa suabea, trakzio indarrean etenik sortu gabe, eta zaraten murrizketa.



Abantail ekologiko hauek lortzeko, autobusek software programa berri bat daukate, “Topodyn” izeneko alegia. Abiadura kaxen softwareak unean-unean abiadura aldaketen programazioa aukeratzen du ibilbidearen ezaugarrien arabera, sistemari ahalik eta probetxu optimoena ateratzeko.

CIVITAS:

DBUSEk 2010ean bere ontzidira gehituko dituen 8 autobus ekologikoak CIVITAS Proiektuak aurten diruz lagunduko dituen jardueren artean daude, eta Donostian kalitate handiko garraio publikorako ezarri diren korridoreetan zehar ibiliko dira. DBUSEk, proiektu honi esker, hiri garraioa iraunkorragoa izan dadila ahalbidetuko duten neurriak garatzen jarraitzen du, esaterako, bere autobus guztietan birziklatutako olioetatik datorren Biodiesela erabiltzearena.